

Erreferentziako

txartela:

Finantza-txartelen

erraztasun

guztiek in eta

gainera...

**Bidaia-
asistentziako
doako aseguru**

abantailak era
guztietako 2.000
establezimendutan.

Deskontuak
mundu osoan
izateko giltza.

Kontsultatu
BBK26 gida,
www.bbk.es

orrian

MAHATSERRIKO ALDIZKARIA

Deitza

Lege gordailua: BI-85-08
ISSN: 1577-9023

2007ko otsaila
96. zkia. Doan



Kaixo konpartsa
Santutxuko inauteriak
Santutxuko atletismo taldea

Uxue Alberdi
*"Gehien betetzen
nauena sortzea da"*

77 BILBAO - Muelle de Achuri




Atxuriko kaia

XIX. mendearen bigarren zatian atondu eben Atxuriko kai barria, burdin mearen trafikorako batez be. Burdina Larreagaburu (Mina del Morro), Malespera, San Luis eta Abandonada meatzetatik ataratakoa zan. Argazkian kargalekua ikusten da, baita mea ibaian behera eroateko gabarra be. Jakina, zubi askoren azpitik pasatu behar zan itsasora heldu orduko. Lelengoa, bertan eukan, San Anton. Atzean, Atxuriko etxeak altxaten dira, ilaran.



Norbaitek gure bazterrotako argazki zahar edo bestelako irudirik baleuko, eskertuko genduke kopia bat egin ahal izatea. Holan, denon gozamenerako atal hontan ipiniko dogu. Aldez aurretik, esker mila.



AURKIBIDEA

▶ Iritzia	4	▶ Inkesta	19
▶ Santutxuko inauteriak	5	▶ Mahatsberriak	20
▶ Begoña eta euskerea	8	▶ Hezkuntza: Urtxintxa eskola	24
▶ Kaixo konpartsa	10	▶ Santutxuko atletismo taldea	26
▶ Janari exotikoak	12	▶ Mahatserriko Santa Ageda	28
▶ Elkarrizketa: Uxue Alberdi	15	▶ Horoskopoa/Agenda	30

Holantxe kantaten zeurien batzuek Santxuko karnabaletan, ez dakigu ondiño kontaten ikisi ez badaurie ala, dala ehun urte baino gehidxagoko harien modure hamengo berbeta bidxetako bat baino ez badakidxe. Bata ixin, bestie ixin hareik zer ikasidxe daukie.

Bertonen portadan ifini doskuen neskien laguntziñoagaz ahale-gintxue egingo dogu hurrengo baten hobeto kantau deidxen, edo sikieran zer kantaten daurien jakin deidxen. Hamen Bertonen kartillie.

Bat. Erretratuen dekozuen neskiek lenengo liburue egin ddau. Elgoibarreti Santutxure etorri ta eskribidu. Bat, liburu bet, ikusikoak begi itzel bidxotako bisturidxegaz ebagi ta liburure ekarri. Holango abilidadie gure genduke geuk be.

Bi. Historidxek diño oin dala ehun urtetik gora lagun bi (gitxinez) egoazala gurien erderie ez zekidxenak. Bata Atxurikoa ta bestie Uribarikoa. Tabernaridxe ta tellagine. Txikitoak ta telliek ez zekidxen erderaz, guitoak ta uralitiek ez ei dakidxe euskeraz. Txikitoari be ahiztu egin ei jako, ta tellieri ez dotzagu preguntau be egin. Bidxek jakin ez zeuriezen bidxek, jakin behar ei zen bategaittik zekidxien bakarra galdu zen.

Hiru. Metroan hirugarrena egino ei doskue, hortik goititik, itxaso ikusten ei dan lekuti. Otxarkoaga, Zurbaran, Uribarrin,... erderaz ez zekidxen tellaginen herriti,... Tellak ez daurie ikusiko metroa bada, ala tellan ganien egingo daurie? Hirugarrena ei de, ondiño-karren ez dakigu lenengo bidxek zeintzuk direzen. Baina kontaten ez dakidxen horreintzat,... hirugarrena badago lehenengo bat eta bi egon direzelako da.

Lau. Sardiña-bakalau kantaten zeurien hareik. Sardiñie ta bakallaoa Atxuriko porture deskargaten zirien oingo foto zaharrari kaso eginez geroan, Atxurin, erderaz ez zekidxen tabernaridxen herridxen. Sardinek eta bakallaoak ez zeurien preguntarik eitten. Ez zeurien kontau be egitten. Eta geuk be ez doguz kontaten: sardinie eta bakallaoa, holan, singularrien. Neska begiederran liburue lez, liburue.

Hamen akabaten zan Santutxuko hareik kantaten zeuriena, bostera ez zirien ailegaten. Bertonen be ez direz bostien lotu be egin. Hogeire joan direz artez, Urtxintxan egin deittuzen urtiek, eta handik inkontablara, edo infinitora, edo kontauzezinerara, edo kontau biher ez danera joan direz segidxen.

Ez direz kontaten fazilek Santutxuko neska korrikalaridxek, ekipo bat ei direz, banan banan baktxak eitten dau berie, baien bat baino gehidxago ixitiek poza emoten dotzie. Begoñeko konpartsaokoari letxe.

Ez direz kontaten gurera etorten direzenak etorten direzen herridxek. Han be ez dakidxe erderaz, baie han berba, leidu eta jan be eitten da, ez dakigu han tella eta txikitoak daozen, baie tetxoa ta edana egongo da, ta jana be bai. Tetxoa ez daurie ekarten, hona datoz aterpe gozooa topaten, ta jana ekarten daurie, ekarten doskue, ta opetsi. Ondiño batek batek pentsauko dau guri ez dakitt zer kentzen datozela.

Emon, kendu, ekarri, eroan, horreitek eitten daurie gatxa kontatie. Bertonen numeroak baino gehidxago be kontaten direz. Leidu, ta kontau, ikisiko zenduen honezkeroan.

GURIDI MUSIKARIAREN PLAZAREN ESANGURAREN INGURUAN



Begoñako eleizateko Zurbaran inguruetan topau geinke Guridi musikariaren plaza. Egin-eginean bere, plaza honek hiru-angeluko era dauka, eta beraren mugaideak dira Etxebarriko parkearen ondoko kaminoa, hau da, Zumalakarregi etorbidea, Zurbaran kale partikularra eta Artzain Onarena.

Beraren izena dago Jesus Guridi Badiola musikagilearen omenez, 1961ean, bera hil zan urtean; izan bere, musikari hau 1886ko abuztuaren 25ean jaio zan Gasteizen, eta 1961eko apirilaren 7an hil Madrilen; beraren gorpua Madrilgo Almudena-ko kanposantuan dago. Bera euskal musikak XX. gizaldian emoniko musikagile handienetakoa dogu. Bera gasteiztarra izanagaitik, Bilbon

hezi zan, eta Brusela eta Kolonian ikasi eban musikagile legez; Santiagoko katedralean jardun eban organo-jole legez, eta Korala zuzendu eban; hori ezeze, botxoan bizi izan zan urte askoan zehar eta uri hau izan eban jaioterri haren obra askok eta askok, bai eta argitaratu eurak bere.

Beraren aitita izan zan Nikolas Ledesma aragoitarra; berau Bilbon bertokotu zan, eta Santiagoko kapera eta organoa zuzendu zituan, eta kargu horretan beraren ilobak jarraitu eutson.

Jesus Guridiren obren artean, 'Amaya' eta 'Mirentxu' euskal operak daukaguz, bai eta 'El caserío' zartzuela, eta 'Diez melodías vascas'.

GOTZON LOBERA REVILLA



ARGITARATZAILEA:
Batana Batu Kultur Elkartea

ERREDAKZIOA:
Iturriaga 55, 1. ezk.
Bilbo - 48004
Tfnoa:
94 473 54 48
e-posta.:
berton@euskalnet.net

ZUZENDARIA
Hektor Ortega

ERREDAKZIOA:
Arrate Diez,
Eneritz Ibarondo,
Nerea Aburto,
Iratxe Ruiz,
Dabi Piedra,
Itxaso Perez
Ane Zabala

ARGAZKIAK:
Iñigo Azkona
DISEINUA ETA MAKETAZIOA:
Iñaki Berastegi
Joseba Barrenetxea

KOLABORATZAILEAK:
Alberto Ugarte, Iñaki Gaminde, Igor M. de Vidales, Santutxuko Bertso Eskola,

Iñaki Aurrekoetxea,
Jose Otazua,
Benito Fiz

ADMINISTRAZIOA ETA PUBLIZITATEA:
Koldo Urrutikoetxea,
Ane Zabala
LEGE GORDAILUA:
Bi-85-98
ALE KOPURUA:
1.900

2007ko otsaila - 96. zkia.



Inauteri zaparrada Euriak ere ezin ditu Santutxuko aratusteak zapuztu

Urtero lez, Santutxuko kaleak mela-mela eginda ikusi ditugu aurton be. Baina ez euri urez, polito bota zuen arren. Aratuste giroaz busti ziren kaleak otsailaren 25ean. Santutxuko inauteriek mozorro festa itzela eragin zuten hainbeste ume, gazte eta adinekok lotsa guztiak galduta umoreaz egin zietelako erronka eguraldi zantarrari. Ikusi, ikusi bestela...



ATU GURER A

ATU GURER A

2007ko otsaila - 96. zkia.

Denetarikoz jende moduak atera ziren kale-
ra Santu-txuko inauterietan Familia Elkartean
deialdiari erantzunez. Umore ona, giro polita
eta historiarako hamaika irudi. Zure burua ikusi
duzu?
Argazkiak: Iñigo Azkona



BEGOÑA ETA EUSKERA

Begoñako errepublika zaharrea euskara ez da inoiz guztiz galdu eta, beraz, gure hizkuntzaren presentzia historikoak ez du inor harrituko. Hala ere, bat baino gehiago zurtuta geldituko da ikusita zein ugariak diren XX. mendearen atartera arte mahatsorri asko euskaldun huts zirela erakusten duten lekukotasunak.

ATXURI ETA URIBARRIKO EUSKALDUN HUTSAK



Atxuri auzo langile eta meatzaria zen XIX. mendearen akabuan.

Migel Unamunok behin baino gehiagotan azaldu zuen bere ume aroan (1864an jaio zen) Bilboko seinek ez zutela euskaraz egiten. Fenomeno berria zen hura, goi klaseek hasitakoa, Sabino Aranek berak bere buruaz berbetan aitortu zuen bezala. Euskarazko berba eta esamolde asko jakin bai, baina egiten ez. Bestela zen, oster, albo-herrietan. 1891n Unamunok 'Chimbos y Chimberos' artikulua irakurri zuen El Sition eta kontakizunean argi laga zuen Urribarriko neskatilekin ligatzeko bilbotarra hobe zutela euskaraz egitea.


Urribarriko euskaltasunaren beste

ale bat gertakizun triste batek paratu digu eskura. 1840an Urribarriko Tiboliko teileraren inguruan behargin bat hilik eta semea zaurituta suertatu ziren. Ikerketek lan istripua izan zela ondorioztatu zuten. Jose eta Migel Artzamendi aita-semeak trokan zeuden, teileriatik hurrean, buztina ateratzen. Adreiluak egiteko erabili behar zuten. Beharrean zihardutela, lurjausia gertatu zen eta biak ehortzita gelditu ziren. Semea onik irtetea lortu zuen, baina Agustin Letona lan-kidea etorri zitzaion arren, aita ezin zuten salbatu. Lurpetik atera orduko hil aginean zegoen.

Kontua da Begoñako fiolak (alkateak) ikerketa hasi zuela heriotza argitzeko. Letonari, medikuei eta abadeari deklarazioa hartu ostean, hildakoaren semea deitu zuten. Migel Artzamendi mahatsorria 33 urteko gizona zen. Euskaldun hutsa. Ez zekien erdararik. Eta itxura denez, eskribaua ez zen euskalduna. Horren ondorioz, itzultzaileagaz jardun behar izan zuten.

IPARRALDEKOA

Eta horrek beste bide bat zabaltzen digu. Itzultzaile Juan Karrikart aritu zen. Karrikart Tiboliko teileriako uga-



Urribarri aldeko baserriak eta Campo Volantineko hasiera XIX. mendean.

zaba zen, Artzamenditarren nagusia. Eta bere deiturak argi uzten duenez, Ipar Euskal Herrikoa zen. Ez dakigu noiz heldu zen Begoñara, baina 1805ean bertan bizi zen, urte hartan jaio baitzen Dolores alaba. Izan ere, Juan Karrikart San Martin Angela Gezalarekin ezkondu zen eta seme-alaba andana eduki zuen.

Baliteke Karrikart aurreko hamarkadan Iparraldetik Hego Euskal Herri-erorritako gazte haietako bat izatea. Foruak galdu eta soldaduska ezarri berriak ihesi Lapurdi, Baxe Nafarroa eta Zuberoako herriak utzi eta Bizkaia, Gipuzkoa, Araba edo Nafarroara aldatu ziren hamaika mutil. Juan Antonio Mogelek 'Peru Abarca'n (1804) laga zuen euskal errefuxiatu haien berri. Hemen gehien bat teilagin ibili ohi ziren, Juan Karrikarte bezalaxe.

Izan ere, Karrikarte lehenengo arduradun eta gero ugazaba topatu dugu Urribarriko teilerian. Egon teileria Campo Volantinetik hur zegoen eta berau be bertan bizi zen. 1813an bere andreak eta Bilboko esne saltzaile batek okasioa eduki zuten Campo Volantineko etxeko atartearen. Ageda Berazak Juan Karrikarte iraindu zuen "frances, que estás comiendo lo ageno" -erdarazko transkripzioaren arabera- esanez.

Eta 1834an ere Campo Volantinen bizi ziren Karrikarte-Gezala andre-gizonak, euren seme-alabatarik batzuekin eta teileriako beharginekin. Euretako bat, Migel Artzamendi euskaldun hutsa.

ATXURIN TABERNARI

Esan legez, gure kaleetako euskal-

tasuna ez zen hain aspaldi amaturtu. 1895ean Atxuri langile auzoko tabernetako bat Zabalgaitia Arraibi ama-alabaren ardurapean zegoen. Izatez arratiarrak ziren hala ama Juana Arraibi (52 urte) nola alaba Eusebia Zabalgaitia (24 urte). Urte hartan ustez hilketa egin zuen gizon baten bertsioa baieztatzeko itaundu zituen epaileak. Hala amak nola alabak itzultzaileagaz deklaratu zuten. Euren berbak euskaratik erdarara eman zituenak Francisco Ortiz de Zarate bilbotarra izan zen. Sumarioan deklaratu zuten erandioztar askok ere itzultzailea behar izan zuten eta zeregin horretan beste bilbotar batek jardun zuen. Ez dakigu ama-alabok Atxurin noiztik zeuden, baina 1895eko tabernari haiek euskaldun hutsak ziren.



Halderapeko
euskal kultur gunea

www.halderapeko.com

txakur kalea, 1. 48005
bilbo • euskal herria
tfnoa: 94 416 40 99



KAIXO, ZURBARANBARRIKO KONPARTSA

Aste Nagusian, inauterietan eta urtean zehar auzoan dihardu jai herrikoien alde

Auzo txikia da, herri girokoa. Herri mugimenduen garai gorenean sortu zen Kaixo Konpartsa, 1981ean, lehenengo Aste Nagusiaren bultzada hartan. Izan ere, 1982ko txupinera Kaixo Konpartsakoa izan zen, Montse Valerio, eta txupinera jantzia ez duen bakarrenetakoa da. Hasierak ziren. Gerora asko aldatu da konpartsa, bai jendez baita lan egiteko eran ere.

Testua: Itxaso Perez
Argazkiak: Iñigo Azkona

1981 urtean sortu zen Aste Nagusian parte hartzeko. Herri mugimenduko jendeak eta jai eredu horrekin bat egiten zutenek osatu zuten konpartsa, ia denak auzokoak bertakoak. Jende nagusia zein umeak eta gazteak. Auzoan mugimendua zebilen urte haietan: konpartsa, aisialdi taldea, elizako jendea, auzo elkarteak...

Gauza batek bestea zekarren eta Aste Nagusian parte hartzeaz gain Inauterietara ere jaisten ziren, hainbat urtetan fanfarre eta guzti. Eta auzoari bizitza apur bat gehiago eman nahian udaberriko jaiak antolatatu edo bultzatu zituzten.

Zurbaranbarriko plaza izan da egoitzaren erreferentzia nagusia. Lehen lokala bertan bazeukaten, orain ere bertan dago egoitza, baina plazako beste ertzean.

Izen handikoak izan dira euren ogitartekoak Aste Nagusian, baita sukaldaritza txapelketetan urteetan eta urteetan eskuratutako sari nagusiak: bakailoan, tortilletan, zezen-

buztana erregosian... 1983an, uholdeetan, eta gainerako konpartsek bezalaxe, kolpe gogorra jaso zuen Kaixok, txosna Areatzako kaian zegoelako. Konpartsako jendea Bilbora jaitsi zen garbiketa lanetan laguntzera.

Urteak pasa ahala belaunaldien arteko txanda aldaketa behar bezala gertatu ez eta Aste Nagusian zein Inauterietan parte hartze txikiagoa eduki zuten harik eta 1997 urtean Aste Nagusian txosna ipini barik gelditu ziren arte.

Auzoko hainbat jende eta talde Kaixo berpiztu nahian ibili zen, bai Bilboko jaiei begira baina baita auzoari begira ere. Konpartsako jendeari hainbat proposamen egin zie-



ten, baina gehiengoek ez zituzten ikusten, eta orduan, gogoz zebilen gazte talde batek bere kabuz konpartsarekin aurrera egiteko erabakia hartu zuen. Horrela, 1998an berriro txosna ipini zuten Aste Nagusian, eta gaur egun ere dinamika berriztatzailean murgilduta dabilta. Dinamika horien oinarriak jai eredu herrikoia



eta partehartzailea sustatzea dira, baina baita auzoan eragitea ere, nolabait auzoko jendeak eredu honen parte izan dadin. Herri kulturaren sortzailea izatea hain zuzen. Eta helburu hauekin ados dagoen ahalik eta jende gehien biltzea ere.

AUZOAN LAN

Udaberriean auzoko jaien antolamenduan parte hartzen hasi ziren berriz Kaixokoak. 2000 urtean auzoko jaien bere bigarren zikloa edo etenaldia gertatu ondoren, bost urte geroago indarrak zeregin horretan ipintzeko erabakia hartu zuten, eta gaur egun Zurbaranbarriko jaien antolaketan zutoi nagusienetakoa bat da konpartsa.

Ez da auzoan egiten duten lan bakarra. Urtean zehar Santomas, ia galduta zegoen Olentzero, Agate Deuna, Inauteriak, sagardotegia, Kaixo Eguna, ... eta Aste Nagusia, jakina, helburu nagusia da eta. Aurtengo Kaixo Eguna martxoaren 31an izango da. Zurbaranbarriko plazan tailerrak, lehiaketak, bazkaria eta horrelakoak antolatuko dituzte, konpartsa auzoko jendearengana hurbiltzeko asmoz. Deia luzatzen diote Zurbaranbarriko eta inguruetako jende guztiari egun horretan plazara agertzeko eta

Aratusteetako karrozarik ederrena

2007ko Bilboko Inauterietako Karrozen Lehiaketan lehenengo saria eskuratu du Kaixo Konpartsa 'V' aspaldiko telesaila parodiaturaz. Telesailako estralurtarrek asmo onak azaldu bai baina euren benetako helburua euren ohiturak eta bizimoduak ezartzea zen. Gure ingurura moldatuz, Kaixokoek salaketa egin dute bertakotzat ez dituzten kultura, eredu politiko, ekonomiko edo soziala herri honetan inposatu nahi dutela. Kaixokoek "gaiztoen" (estralurtarren) papera hartu dute karrozan, eta bertan azaltzen ziren "estralurtarren" irudiak eta hauen gainean Kaixoko "K" idatzita. Ikono edo irudi horiek esaterako, Bush, indar armatuak... izan dira. Hauei guztiari esker sabela ondo beteko dute Erriberako Merkatuan bertako produktueta gastatuko dituzten 500 euroekin.

ondo baino hobeto gozatzeko!

Baina jaiak topera disfrutatzeaz gain bestelako "gai serioetan" ere denbora ematen dute. Horrela, duela lau urtetik hona informatika, txalaparta eta euskarazko eskolak eman dituzte plazako egoitzan, arrakasta nahikotxorekin. Noiz edo noiz mendi txangoak egiten dituzte, mendiaz disfrutatze edota eguna konpartsako jendearen artean igarotzeko asmoz.


Arestian aipatu bezala, barne funtzionamenduan ere aldaketak izan dira. Orain talde lanak antolatuta dauzkate: komunikazioa, aktibitateak, koordinazioa Bilboko Konpartsekin,... Eta azpimarratzen dute egun dagoen jendea nahiko gaztea izan arren oso ondo erantzuten ari dela. Baina baita ere faltan sumatzen dutela

jende nagusiagoa eta esperientziaduna. Dena dela, jende askotxo dabil. Inauterietan 60 bat pertsona elkartu dira, eta ez dira denak azaldu.

Bilboko Konpartsekin koordinatzen dira hilean behin, eta aurten Jai Batzordeko kidea da Kaixo. Barruti Kontseiluko arlo sozio-kulturean era iraunkorrean parte hartzeko eskaera eginda daude eta hurrengo agintaldian hala izatea espero dute.

MUNDUKO JANARIAK GUREAN

ERRUMANIAR HARATEGIA, INDIAR JATETXEA ETA DENDA AFROLATINOA BISITATU DITUGU



Oraingoan exotismoari eutsi diogu eta Begoñako errepublika zaharretik osteratxoak egin dugu munduko jatekoak non aurki genitzakeen bilatzera. Zorionez, paseoak merezi izan du uste baino leku gehiagotako produktuak aurkitu baititugu. Hala, Basmati arroza, afrikar palmondo olioia, Malai errumaniar irina, Hego Ameriketako garagardoa... eta beste hainbat kuriositate aurkitu dugu etxetik hurbil. Bilboko errumaniar produktu denda bakarreko arduradunarekin hitz egin dugu, Nigeriako afro-latino dendariarekin egon gara eta indiar jatetxe batean barrena sartu gara zapore eta dastamenari plazer apur bat emateko.

*Testua: Arrate Diez
Argazkiak: Iñigo Azkona*

'Produce românești' kartela ikusita Elisabetha eta Georgeren dendara heldu gara Zabalbide kalean. Iazko azaroan zabaldu zuten denda errumaniar hauek. Bertan Errumaniako produktuak saltzen dituzte, txerriak, garagardo eta ardoa, arto irina... Elisabethak esan duenez "produktuok prestatzeko errazak dira eta gainera zuen kulturen bezala dilista zein indabekin jateko primerakoak dira

keztatutako okela hauek". Malai izeneko arto irina ere saltzen dute, eta pure lodi modura prestatzen da. Hori haragiarekin jaten da. "Gure herrian okela asko jaten dugu, lan gogorra egiten denez bai obretan zein basoan, haragia jateko ohitura handia dago. Gainera tenperatura baxuak izaten direnez okela eguneroko jatekoa da Errumanian", gaineratu du Elisabethak.

Okelaz gain Errumaniako pisto antzeko barazki poteak, kontserbak, gailetak, kafea, tomateak, bainila azukrea, nata... produktu gehienak Madrilan erosten dituzte, han baitago Errumaniatik zuzenean eramaten dituen enpresa eta handiak hona ekartzen dituzte. Elisabethak hamabi urte eman ditu hemen eta berak dioenez, "ni beterana naiz, besteek urte gutxiago daramate

bertan



Castaños kaleko Agra Mahal indiar jatetxea

hemen". Elisabethak gurasoak ditu Errumanian baina hemen ere bere familia gehiena dauka. Beraz, oporetan baino ez doaz amarenera.

Elisabetha oso pozik dago dendarekin, era honetan, inguruetak gainerako errumaniarrek harremanetan dago eta bere herriko hurbileko informazioa benetan eskertzen du.

INDIARRAK

Agra Mahal indiar jatetxea Kastaños kaleko zortzigarrenean aurkitu dugu. Bertan Sahaghir eta Arfam izeneko bi gizonek lan egiten dute. Sahaghir-ek kontatu duenez, "ia lau urte bete ditugu eta Indiako janari tipikoa eskaintzen dugu, elikagai naturalez egindakoa, ez elikagai industrialekin eta horretarako, Tan-

dori izeneko labea erabiltzen dugu".

Menuetan hainbat jateko eskaintzen dituzte. Hasteko, esaterako, Onion bhaji izeneko garbantzo irina eta barazkiak dituen platera da. Samosa izeneko barazki enpanadila gozoak ere prestatzen dituzte. Bigarren plateran, oilaskoa hainbat eratan jateko aukera dago. Tikka oilaskoa da gehien jaten dena. Oilasko horrek jogurt saltsa, almendrak, pistatxoak, eta saltsa arrosa dauka. Oilaskoaz gain arkumearekin ere hainbat plater prestatzen dituzte indiar erara. Adibidez, oilaskoa eta arkumea Madraz erara (Indiako hiri hartako estiloan). Plater hori apur bat pikantea dela esan digu baina hemen arrakasta handia eduki ei du.

Izan ere, gehien jaten den plate-

ra Korma Shai arkumea da. Horrek koko, almendra, olio, oilasko eta arkume zatiak dauzka, natarekin batera. Halako edozein plater Basmati arrozarekin ere jaten da eta edateko Indiako garagardoa probatzeko aukera ere badago Agra Mahalen. Guzti hau Indiako ogiarekin, nanarekin lagunduta eta postre modura lau aukera dago: Kulfi izozkia, Mango Lassi mango jogurta, Indiako natilak eta Kashmiri tea.

Sahagir-en esanetan "asteburuetan jende asko dator afaltzera, bertokoak eta atzerritarrak, eta jendea-ri gauza berriak probatzea gustatzen zaio".

AFROLATINOA

Santutxuko Menendez y Pelayo

Agapi

Dekorazioa eta eskaiola
Sabai akustikoak eta eskaiolazko dekorazio deribatuak

Jose Migel Barandiaran Aierbe 1, 1 ezk
Tlfnoa: 944336916 - Sakelekoa: 651709114
SANTUTXU - 48006 BILBO

santutxuko *Iturriaga 96.*
herriko taberna

Gosari bereziak:
Katea + pintxoak 1,50 €.

Euskal Herria
AURRERA!!

Garaizar

JESUS GALINDEZ, Nº 10
Telf. 94 478 012 265 - GARAIZAR - BILBO





Goian, Zabalbideko errumaniar harategia. Behean, Leo Santutxuko The Bell denda afrolatinoan



kalean behera goazela laugarren zenbakian The Bell izeneko afrolatino denda dago. Bertan Leo Ogunleye nigeriarra da dendako arduraduna. Zer motatako produktuak saltzen dituen galdezka sartu gara. Afrikar jateko ikusgarriak saltzen ditu, izan ere, hemen ez dugu halako produkturik. Siku dagoen

elikagai asko saltzen ditu: langostino sikua, pikante sikua, kalabaza sikua, antxoa sikua, espinaka sikua, arrain keztatuak... Horiez gain, afrikar fruituen barruko haziak jatekoak egiteko, patata purea, jame irina, platano irina, juka irina, jatekoak egiteko kakahuete krema, afrikar arroza -

hemengoa baino luzeagoa-, palma olioia zein koko krema. Leok esan digunez, "produktu hauetarik gehienak Frantziatik ekartzen dituzte baina Afrikako beste jangai batzuk, Madril, Belgika zein Ingalaterratik dakarguz".

The Bell denda Kolonbia, Ekua-dor zein Peruko jangaiak ere badaude, bertako irinak eta garagardoa esaterako. Produktu hauek Errioxako enpresa batek ekartzen dizkio.

Ogunleyeren esanetan, "jende asko datorrenean galdetzera dator eta zelan prestatzen den jakin nahi du. Irina asko saltzen dugu, afrikar jende asko baitator erostera. Bada-go ere, Afrikara bidaiatu diren bezeroak eta hango produktuak erostera datozenak". The Bell denda duela ia urte bat zabaldu zuen Leok eta bertan bizi diren afrikar zein hego amerikar biztanleak dira bezerorik finkoenak. Leo kazetaria da eta urte batzuk egin ditu honez gero gure artean. Hainbat lanetan ibili ondoren dendatxo honetan aritzea gustuko du. Halako dendak San Frantzisko kalean ere badaude baina batzuei etxetik hurbilago datorkie Leorengana hurbiltzea.

e l k a r r i z k e t a

UXUE ALBERDI

"Gehien betetzen nauena sortzea da"

Uxue Alberdik irabazi zuen iaz Igartza saria eta bide horretatik plazaratu berri du bere lehen liburua 'Aulki bat elurretan'. Elgoibarko idazle gazteak bost urte darama gurean bizitzen, eta adierazi digunez ez luke Mahatserrria beste ezergatik aldatuko, gustura dago hemen bizitzen. 'Aulki bat elurretan' ipuin bilduma martxoaren 28an irakurlearen txokoa aurkeztuko du.



*Testua: Ane Zabala
Argazkiak: Iñigo Azkona*

**Igartza saria irabazi duten idazle-
en artean gazteena zara. Zer suposat
du horrek zuretzat?**

Datu hori nahiko anekdotikoa dela uste dut. Neukan edadearekin idatzi nuen eta suertea orduan eduki nuen.

laz jaso zenuen Igartza saria eta urtebete izan duzu proiektua burutzeko. Nola joan da urte hau?
Ondo. Azkenean banuen gogoa hainbeste denboran nire inguruan zebiltzan paper horiek liburu forman ikusteko. Hala eta guztiz ere, ez zait oso pisutsua egin. Suedian urte bete pasatu nuen, han prestatu nuen bekarako proiektua. Liburuko ipuinetatik erdiak han idatziak dira. Gero urte bete izan dut, Bilbon bizi nintzela, ipuin bilduma bukatzeko, gaur bat, bihar beste bat, estres handirik gabe bukatu ahal izan dut. Nire lanak paper forma izaten dute eta ez artxibo forma, ohitura daukat artxiboak inprimatu eta paperaren gainean zuzenketak egitea.

Beka irabazitakoan adierazi zenuen zure helburua idazten disfrutatzea zela. Hala izan da?

Bai, dudarik gabe, disfrutatu dut eta disfrutatzen jarraitzeko asmoa daukat. Bada denbora bat konturatu nintzela ni gehien betetzen nauena sortzea dela eta saiatzen naiz ahalik eta denbora gehien hori egiten.

'Aulki bat elurretan' ipuin bilduma da, Suedian Erasmus bekarekin zeundela garatutako proiektua da. Zer nolako eragina izan du herrialde honek lana egiterako orduan?

Suedia aitzakia baino ez da izan liburu hau osatzeko. Beste nonbaiten izan banintz, Erasmus beka beste lekuren batera eraman izan banindu berdin idatziko nukeen. Suedia niretzat oso leku ona izan da idatzeko. Alde bateatik denbora asko izan duelako bakarrik egoteko eta bestetik Suedian gauak luzeak direlako eta kalean zer egin handirik ez da izaten. Beste alde batetik oso herrialde literarioa iruditzen zait. Suediak baditu elurra, izotza... hemen ez daukagunak oso denbora luzez daude han.

Zergatik aukeratu zenuen Suedia?

Erasmus beka jaso nuenean, herrialdeak aukeratzeko momentuan, auke-



ran Europako herrialdeak baino ez zeuden eta European bakarrik zenez, ahalik eta urrutien joatea erabaki nuen. Aukerak ikusita urrutien Suedia zegoen eta horrela aukeratu nuen.

Hilerrri baten ikusitako aulkiak piztu zuen lehen ipuina?

Lehen ipuinaren abiapuntua Suedian autobus batean noala gertatu zen. Hilerrri batetik pasatu ginen, aulki txikia ikusi nuen hilobi baten alboan. Hurrengo egunean argazki kamerarekin joan nintzen hilerrira, baina aulkia ez zegoen han. Hori esplikatzeko modu bakarra ipuina asmatzea zen.

Horrela jaio zen 'Aulki bat elurretan' ipuina, gero liburuari izena eman diona. Gaur egun aulki hori ipuineko aulkia bilakatu da. Buelta asko ez diot ematen gertakizun horri. Ipuin hori da gehien irakurri dudana, idatzi nuen lehenengo ipuina izan zen eta orain goitik behera buruz dakidala uste dut.

Ipuin bilduma da, baina ipuinek badute elkarren artean loturarik?

Batzuek bai, baina egia esan lotura gehienak xehetasunak dira, detaile txikiak. Loturekin ez dut obsesionatu nahi izan, ipuinek indarra gal dezakete loturengatik eta. Badaude pare bat

historia bi ipuinetan garatzen direnak baina bakoitza bere aldetik ere ipuinak dira, ez dute bestearen beharrik ipuin izateko. Gainerako lotura guztiak, giro bat, espazio bat eta denbora bat adierazten duten loturak txikiak dira. Irakurleak sentitzeko ipuin guztiak momentu eta leku berean direla.

Pertsona anonimoak dira ipuinetako protagonistak. Harremanak dira ipuinetako gai nagusia?

Bai, hori da. Horregatik esaten dut Suedia aitzakia izan dela. Nik ez dut Suediari buruz idazten baizik inportazioa gaien inguruan. Pertsona

anonimoak dira ipuinetako protagonistak zuek edo ni izan naiteke kasu askotan. Suediaren erretratua egiten dut. Han nik ikusten ari nintzenaren erretratua da. Alde horretatik izan daiteke Euskal Herria hemendik urte batzuetara izan daitekeen argazkia, zenbait zentsutan. Suediarrak gauza batzutan oso aurreratuta daude. Aurrerapen horiek ekartzen dituen atzerapenekin.

Liburuaren aurkezpenean aipatu zenuen aurrerapen hori?

Aurrerapena deitzen diogun termino horrek dakarren guztiari. Hara heldu

eta lehenengo inpresioa dena ondo funtzionatzen duela da, ez du ezer huts egiten. Unibertsitatean paper bat eskatu eta bi minututan ematen dizute. Autobus geltokira zoaz eta beti puntuan dator. Norbaitekin geratu eta betiere puntual heltzen da, dena oso ondo funtzionatzen duela ematen du. Gu beraientzat halako zoro moduko batzuk ginen, gaueko hamarretan afaltzera kalera gindoa zelako. Halako perfektutasunak baditu beste alderdi batzuk. Askoz indibidualistagoak dira. Ni hamar suediarrekin bizi nintzen etxean eta sukaldea konpartitzen genuen. Beti afaltzen zuten beraiek bakarrik eta telebista aurrean. Gu bost lagun afaltzeko geratzen ginen eta, guk senegaldarrei begiratzen diegun bezala begiratzen ziguten adibidez, hamabost lagun elkarrekin etxe baten afaltzen ikusten ditugunean bezala, edo irudi horiek ikusten ditugunean. Orduan konturatzen zara, dena eskala bat dela. Adibidez guk hegoamerikarrei buruz daukagun sentazio hori; inpuntualak direla, denborari kasu egin gabe bizi direla, beraien hitzak ez direla gure hitzak bezalakoak, bai esan eta ez egiten dutela. Suediarrek gutaz zeukaten ikuspegi berdina da. Azken finean dena eskala bat zela konturatu nintzen, segun nondik begiratzen zenuen.

Liburuan badaude eskaleak, alkoholismoa, porrota... Horiek ikusteko modu ezberdinak daude, zein izan da zurea?

Nik umorea eta ironia aukeratu ditut. Adibidez, azken ipuina, nik gehien maite dudana ipuinetako bat da. Hor bi protagonista daude. Bata alkoholikoa da eta bestea alkohola saltzen duen dendaria da. Suedian alkohola saltzeko dendak daude, alkohola estatuen monopolioa da. Orduan ematen duena da biktima alkoholikoa izan beharko litzakeela eta azkenean buelta ematen diot eta alkoholikoa bezain dependientea da dendaria beste arrazoi batzuegatik. Ipuinetan gauza tristeenen alde onak bilatzen saiatu naiz, umorez eta ironiaz. Hain perfektuak diruditen gauzei barre egiten saiatu naiz eta inperfekzioak umorez tratatzen. Inperfekzio-

ak gizarteak inperfektu bezala ikusten duela baina beste mendekotasun batzuk onartzen ditugula.

Hamazazpi ipuin bildu dituzu 'Aulki bat elurretan' liburuan, baina zenbat denbora pasatu da lehenengoa idatzi zenuenetik azkenekoa idatzi duzue-ra?

la hiru urte pasatu dira. Lehenengo ipuina hogeitaz urterekin idatzi nuen eta hila-bete barru hogeita hiru egingo ditut. Pare bat urtean idatzitako ipuinak direla esan daiteke. Abuzturako ipuin bilduma bukatuta nuen. Nik lehenengo ipuinetik azken ipuinetara ezberdintasun handiak nabaritzen ditut. Idatzi nituen azken ipuinak askoz ere landuagoak daude edo literatura aldetik askoz sailagoak dira ipuin horiek eraikitzen. Lehenengo ipuinetan ikusten ditut gauzak orain ez nituzkeela berdin idatziko. Baina horrek kezkatu beharrean poztu egiten nau, eboluzioa izan delako.

Mugitzen zaituena sormena dela esan duzu, bazabiltza zerbait idazten?

Idazten jarraitzeko asmoa daukat, nik aspalditik idazten dut, oso gaztetatik idazten dut. Betetzen nauen gauzetako bat da. Beste ipuin batzuk idazten nabil. Eleberri proiektu bat badaukat buruan, hauek denak ze forma hartuko duten ez dakit, segitzeko asmoa badaukat.



Bertsolaritzan ere bazabiltza. Duela hiru urte hasi zen bertso eskolan. Non zaude gusturago, sormen lanean edo bertsoan?

Biek zer ikusia badute, bietan hizkuntzarekin jolasten duzulako. Baina nik asko bereizten ditut oso prozesu kontrajarriak direlako. Idaztea adibidez oso prozesu bakartia da, ideia guztiak zureak dira, ezin duzu inorekin konpartitu baina era berean nahi duzun denbora daukazu zuk nahi duzuna nahi duzun beste lantzeko. Bertsoan kontrakoa da. Bertsoa oso soziala da. Beti elkarrekin kantatzen dugu, taldean entrenatzen dugu. Literaturarekin konparatuta badu bere alde txarra edo, jartzen dizuten gaiaren inguruan kantatu behar duzu, nahi beste denbora pentsatzeko ez daukazu eta gainera ezin duzu nahi duzuna esan, mila

baldintza dituzulako; denbora, errima eta hori dena. Niri biak gustatzen zaizkit. Gainera biak behar ditut oreka lortzeko. Etxean bakarrik egongo banintz nire ideiekin bultaka zoratu egingo nintzateke. Alderantziz bertsoan bakarrik egingo banu geldituko nintzen zentzazioarekin ez dudala gai batzutan sakontzen. Bietarako denbora ateratzen dudanez ez daukat aukeratzeko beharrik eta gainera ez dut aukeratu nahi.

Bakardadea aipatu duzu. Irakurlearena ere bada bakardadea?

Niri bakardadea gustatu egiten zait, gainera bakardadea aukeratua denean oso ona da. Nik behar dut bakarrik egotea, jendearekin egotearen beharra bezain beste. Lagunak behar ditut, parrandak behar ditut, baina era berean momentu batzuk niretzat bakarrik egoteko behar ditut, etxean botata irakurtzen, idazten.

Kazetaritza ikasketak bukatu dituzu, Elgoibarkoa zara baina Santutxun bizi zara...

Bai, Suediako urtea kenduta bosgarren urtea da hemen bizi naizela. Egia esan oso gustura bizi naiz bertan. Ez dakit non bukatuko dudan, orain arte bizi izan naizen lekuetatik bat aukeratu beharko banu bertan geratuko nintzen.

Zortzi galdera labur

Liburua: 'Xake nobela' Stefan Zweig-ena.

Idazlea: Julio Cortazar.

Lekua: Kurdistan, oso oroitzapen onak dauzkat.

Bertsotarako plaza: Giro ona badago, edozein.

Zaletasuna: Lagunak eta parranda.

Bertsolaria: Andoni Egaña.

Elurra edo eguzkia: Eguzkia eta noizean behin, elurra.

Ametsa: Kuriositatea betirako mantentzea.

Aldaketa klimatikoaren azken berriek larritu zaituzte?

XABAT
(SOLOKOETXE)

BAI. HALA ERE, EZ DA GAUZA BERRIA. ASPALDIKO ARAZOA DA, ORAIN ARTE AHAZTUA IZAN DUTENA.



IDOIA
(TXURDINAGA)

ESATEN DIGUTENA BAINO LARRIAGOA DELA USTE DUT.



ARIANE
(SANTUTXU)

NIK USTE DUT BENETAN EZ GARELA ARAZO HONEN LARRITASUNAZ JABETZEN. EGUNERO ENTZUTEN DUGUN ZER EDO ZER DEN ARREN, IKUSTEN DA JENDEAK EZ DUELA HAU SAIHESTEKO ASKORIK EGITEN.




EIHARNE
(SANTUTXU)

ARAZO HONEK MEREZI DUEN GARRANTZIA JASO BEHAR DUELA USTE DUT; GUZTION ALDETIK. EGUN BATEAN BIRZIKLATUZ EZ DA EZER KONPONDUKO, EGUNEROKOA DA GARRANTZITSUENA.

IKOITZ
(BOLUETA)

ORAIN ARTE EZ GAITU ARDURATU. BADIRUDI HEDABIDEETAN AGERTU ARTE ARAZOAK BEHAR BESTEKO GARRANTZIRIK EZ DUELA.



LUISE
(BILBO ZAHARRA)

BAI, LARRIA IRUDITZEN ZAIT. ETA ARGI DAGO, HONEN KONPONBIDEA EZ DAGOELA KYOTOKO PROTOKOLOAREN SINATZAILEEN ESKU; GURE ESKU BAIZIK.



LEIRE
(BILBO ZAHARRA)

KONTSUMOA BULTZATZEN ARI DIREN BITARTEAN JENDARTEA BELDURTZEN ARI DIRELA USTE DUT.



Garraioak



Deitu:
Jabi: 607 43 17 91
Txema: 607 19 68 33

Mahatserrian azkenokaz izan direnak

Metroaren 3. lerroa egiteko lanak datorren urtean hasiko dira

Geltokiak Matiko, Urbarri, Zurbaranbarri, Txurdinaga eta Otxarkoaga izango dira

Etxebarri eta Matiko arteko ibilbidea egingo du Metroaren 3. lerroa esaten dioten lur azpiko tren berriak. Iaz aurkeztutako proiektuarekin aldea dauka otsailean Eusko Jaurlaritzak, Diputazioak eta Bilboko Udalak jende aurrean agertu dutenak. Datorren otsailean hasiko ei dira lanak eta denetara 151 milioi euro gastatuko dituzte.


Oraindik ere ez dago argi noren esku geldituko den Metroaren 3. lerroaren kudeaketa. Iaz Eusko Trenen ardura izango zela esan zuten arren, aurten agintariak ez dira baieztapen hori egitera ausartu. Hala ere, lur azpiko tren berria egin, egingo dutela iragarri dute.

Horretarako proiektu berria daukate, baita epeak eta aurrekontua ere. Hasi, datorren urteko lehenengo hiru hilabeteren buruan hasi gura dute.

dute orain, iazkoaren aldean. Denetara 5.885 metroko trenbidea, iaz baino 1.134 metro gutxiago. Horrela, Otxarkoagatik Zazpi Kaleetara minutu bi gutxiago beharko dituzte. Bide zaharrak Artxanda azpian bihurtzune handia egiten zuen eta hori proiektu berrian kendu egin dute. Ordainean, Zazpi Kaleetan amaitu barik, trenak aurrera jarraituko du Matikoraino.

rrin eta Matikon geldialdiak egingez. Bost minuturo ibiliko ei dira trenak batera eta bestera.

Urribarriko geltokia orain auzoaren erdi-erdian nahi dute, bertara ailegatzeko bost sarbide atonduta: Berriotxo-Traukun bat, gaur egungo Zumalakarregiko geltokitik beste bat -geltoki hori desagertuko da- eta Trauku-Rikardo Arregi eta Urribarriko C zeharkalean bana.



Metroaren 3. lerroa

Horrek atzerapena esan nahi du, aurtengo udaren ostean hastekoak baitziren. Amaitzeko, oster, 40 hilabete beharko dituzte, hasieran esandako 36ak barik.

Sosei dagokienez, 151 milioi euroko gastua kalkulatu dute Etxebarri eta Matiko arteko trenbide berria atontzeko. Atal horretan ere aldaketa gertatu da, iaz 126 milioiko inbertsioa iragarri zuten eta.

GELTOKIAK

Berez, proiektu laburragoa egin

Horrela, Deustuarekin eta, aurrerago, Loiuako aireportuarekin lotzeko aukerak zabalik geldituko dira.

Berez, Etxebarriko San Antonio auzotik hasita, trenak Otxarkoaga, Txurdinaga eta Zurbaranbarriko geltokietan egingo ditu bere geldialdiak Zazpi Kaleetara heldu orduko. Bertan metroarekin aldaketa egiteko aukera emango du. Txartel bakarragaz Otxarkoagatik San Inaziora -adibidez- joateko modua izango da. Zazpi Kaleetatik aurrera jarraituko du trenak Uriba-


Gainera, Izaromendi kalean igogailua ipiniko dute.

Zurbaranbarriko geltokiari dagokionez, Zumaia kalean sarbidea izango du, baita Zurbaranbidean igogailuak ere. Eta Iturriondo plazatik beste sarbide bat egokitu dute.

Metroaren itxura erabiliko dute sarbide gehienetan. Horren ondorioz, fosteritoak gure kaleetan barreiatuko dira.

URIBARRIKO PLAZAN, ALDAKETAK.-

Herritarrek eta auzoko elkarteek egindako protestei esker, Bilboko Udalak bertan behera utzi du Urribarriko plaza zaharberitzeko bere proiektua. Haren lekuan, herritarrek egindako proposamen batzuk onartu dituzte eta, batez ere, espazio libre gehienak bere horretan utziko dituzte.



MAZARREDORA, AITAREN BATEN.-

Martxoan zabalduko dute Isozaki Atea plaza eta eskaileak. Bertatik eta Zubizuritik egindako zaldaina baten bidez, Campo Volantinetik Mazarredora aitaren baten joango da. Santiago Calatrava arkitektoak, bere aldetik, salaketa paratu du Bilboko Udalaren kontra bere zubiari atxikitako zaldaina hori dela medio. Bere jabego intelektual eraso dutelakoan dago valentziar arkitektoa.



BULEBARRA ITXURA HARTZEN HASI DA.-

Laster amaituko dira Maurice Ravel etorbidea egokitzeko lanak. Honez gero, ikusgai dago Salbeko zubitik ia Trauku kaleko bidegurutzeraino zelan geldituko den. Espaloiak zabaldu, zuhaitzak albo banatan, erdiko hesia kendu eta semaforoak eta zebrabideak paratu dituzte.

ASTE SANTUA

AMSTERDAM	365 Euro
PARIS	267 Euro
LISBOA	283 Euro
GRANADA	302 Euro
SEVILLA	353 Euro

mikelizargi@euskalnet.net

Izargi Bidaiak
GRUPO STAR VIAJES
www.ibiltari.com
Iturriaga, 69
Tel. 94 473 00 45
Fax 94 412 07 28
48004 SANTUTXU - BILBO

★
KAIKU
Munduko Herrien Barea
Arsuaga 1 Santutxu

Oleta, s/n - 48970 BASAURI
Tel. 94 426 08 08
Txomin Garat, 4 - 48004 BILBAO
Tel. 94 411 08 55
adiasesor@adi.euskalnet.net

Zergak-lan harremanak kontabilitatea juridikoa merkatalgintza

UMEENTZAKO EUSKARAZKO IKUSKIZUNAK.-

Otsailean bezala, martxoan ere Begoñako udalategian martitzenero, arratsaldeko seieta hasita, umeentzako euskarazko ikuskizunak izango dira, Bilboko Udalak antolatuta. Besteak beste, Trikuharri antzerki taldea, Niko eta Periko pailazoak eta Bihar txotxongilo taldea agertuko dira. 'Ikusi eta ikasi' kanpaina martxoaren 31n itxiko da Bilbo erdian Pirritx eta Porrotx pailazoein.



PRESOEN ALDE.-

Otsailaren 23an ordubeteko lan uzteak eta manifestazioak egin zituzten ehunka mahatsorriek euskal presoentzat amnistia eta autodeterminazioa aldarrikatzeko. Ikastetxe eta lantegi batzuetan beharra bertan behera utzi zuten eta beste horrenbeste egin zuten denda batzuk. Argazkian, Santuxun egindako elkarretaratzea.



IKUSKIZUNA KARMELO KALEAN.-

Santutxuko Karmelo kalean aparkalekua egiten dihardute aspaldion. Zulo itzela induskatu ostean, zaldaina paratu zuten kaleko alde bien arteko pasabide gisa. Hala ere, lagun asko pasatu barik bertan gelditzen dira, lanok zelan doazen aztertzeko. Argazkiko forma ilun horiek dira, obra zertan den inork baino hobeto dakitenak.

Elektriko eta industrial instalazioak

Proyectos y Presupuestos

J. Ruiz

Instalador Autorizado

*Obras, mantenimientos y reparación de instalaciones
*Acumuladores, tarifa nocturna y calefacción bajo consumo
*Porteros automáticos y videoporteros
*Aire acondicionado

Juan de Gissarola nº9 Loma 48004 Bilbao Fax: 944111652-Tf: 656703853

BI-96.0-FM

Bilbo Hiria irratia

www.bilbohiria.com

BILBO ROCK
aretoa

MILITARRAK

6 EUROKO BONOIA BOST
AKTUALITETARAKO

SARRERA ETA BONOEN SALMENTA Zabalguneko Gazte Informazio Bulegoan / Bilborocken emanaldi egunetan

SARREREN SALMENTA BBKren arotariko kubazainetan

Antolatzailea

B
Bilbao UDALA
Kultura eta Eskola Gela

BILBAO EUSKARAZ

Babeslea

bbk

MARTXOAK 2 ostirala 16:00-20:00

BILBOROKETIK ZUZENEAN!

Joseina Etxeberria, Ilaski Serrano eta Mikel Apaolaza jendaurreko saio berezian.

Megaztea
seinale on



MARTXOAK 9 ostirala 19:30

makala SELEKTAN SOUND SYSTEM BREAK DANTZARIAK

2 EURO

BILBO HOP JARA



MARTXOAK 16 ostirala 19:30

bertso TRAHARRASKUA

2 EURO

LOKALEKO LEIHO TIK

Tramagilea: Xabi Paya
Bertsolariak: Etxahun Leku, Onintza Enbeita, Fredi Paia eta Oihana Bartra
Marraskilaria: Patxi Gallego



MARTXOAK 23 ostirala 19:30

LEHIAKETA

MHLZ

Mihiluze Lehiaketa berria bilbotarrekin eta bilbotarrentzat!



deial.de

MILHI LUZE
SARTU MULTZABENTURA ASTEBURUA



MARTXOAK 31 larunbata 20:00

gatibu

5 EURO

KON TZER TUA



URTXINTXA ESKOLA, HOGEI URTE ASTIALDIAN HEZTEN

bertan



EHETIK GORRA



Bizkaiko Urtxintxa Eskola orain dela hogeitun urte sortu zen herri mugimenduan aritzen ziren gazte batzuen eskutik. Urteotan eskola haziz joan da, bai giza baliabideetan zein proiektu eta ekimenean, eta urtemuga honen ospakizunarekin, eskolatik igarotako pertsona guztiak elkartu eta noizbait ereindako haziak fruitua emanaz jarraitzen duela argi utzi nahi izan dute.

Testua: Nerea Aburto
Argazkiak: Urtxintxa Eskola

Otsailaren 10ean Bizkaiko Urtxintxa Eskolak bere 20. urteurrena ospatu zuen Bilboko Kafe Antzokian. Astialdi eta suspertze eskola honetatik igarotako hainbat arduradun, hezitzaile, dinamizatzaile, begirale... elkar topatu eta argazkiak ikusi, kontu zaharrak burura ekarri eta urte hauetako ibilbidea batera gogoratzeko aukera izan zuten, 120 pertsona inguru bildu zituen ekitaldi eta bazkarian.

HISTORIA PIXKA BAT
Bizkaiko Urtxintxa Eskola 1986-87. ikasturtean sortu zen, urte horietan auzo eta herrietan aritzen ziren aisialdi talde-

en beharrezanean erantzuteko asmoarekin. Euskalduna, akonfesionala, sigla politikoa at eta Euskal Herrian txertatutako irabazi asmorik gabeko elkar-tea izan nahi zuen eta, ordutik, eskolaren ekintzarik nagusia heziketa ez formalean hezkuntza bultzatzea eta garatzea izan da, ekite komunitarioan jarduteko gizarte-agendak prestatzeko helburuaz.

Eskolaren hasiera haiek baliabide eskasekoak izan ziren eta militanteen gogoia ezinbestekoa izan zen proiektua aurrera eraman ahal izateko. Astarloa kaleko lokal baten zeukaten egoitza eta eskola osatzen zuten lau zapabost pertsona ziren bertako arduradun, ikastaroetako hizlari, ... Lehen begirale ikastaroa, ordurako aitzindari ziren hainbat gai

jorratu zituenak, ingurumen heziketa eta sexualitatea adibidez, 40 ikaslerekin egin zen Bilboko Mugika eskoletan.

Eskola, 1989an, Mallonako galtzadako lokal batera aldatu zen eta kokapen aldaketarekin bat, aurrera pausu nabaria eman zuten eskolako jarduerak ugarituz. Garai hartan, eskolako partaideak 4-5 pertsona izatetik 10-12 pertsona izatera pasatu ziren, eta artean ikastaroak soilik Bilbon ematen baziren, urte horretan Arratian eta Lea Artibain ere eskolak egin zituzten lehenengoz. Horrela, jasotzaileengandik gertuago egotearen aldeko apustua egiteaz gain, eskolaren oinarriko helburua izan nahi zuena ere aurrera eraman zuten: ikastaroak euskaraz antolatu eta eskaintzea.

90. hamarkadako lehen urte horie-

tan Urtxintxa Eskola gizarte eragileekin elkarlanean hasi zen (Itaka, EGK,...) eta honen ondorioz Eragintza Kultur Elkar-tea sortu zen. Elkar-tea horrek, oraindik ere lanean diharduena, eskolaren hezkuntza proiektua beste esparru batzuetara zabaltzeko jorratzen zituen oinarriak, Eragintzak esku-hartzean lantzen hasi zen.

1995ean, eskolako egoitza Mallonatik gaur egungo Zabalbide kaleko lokalera aldatu zen, eta garai berri honen hasierarekin, begirale ikastaroez gain, generoa eta euskara lantzen hasi ziren era sakonagoan. Generoaren gaia indartzearekin bat Emaisia emakume elkartean sorkuntza etorri zen eta ondorioz Andraisia proiektuak sortutako material eta ekimen ugariak ere. Tertangoko ateparean kudeaketa sasoi honetan heldu zen ere.

Azken hamabi urteotan, Urtxintxa Eskolak proiektuak eta asmoak aurrera egiten zuten heinean bere giza baliabideak hazten ikusi ditu, eta hezikidea, kritikoa, dinamikoa, sortzailea, anitza eta euskalduna izan nahi duen hezkuntza eredua lurraldeko hainbat leku eta pertsonengana zabaltzea lortu du.

LAU MILA LAGUN

Urtxintxa Eskolak hogeitun urte hauetan antolatutako ikastaroetatik lau mila pertsona inguru pasatu da; batez ere, Eusko Jaurlaritzak luzatzen dituen titulazio ofizialak diren astialdiko begirale eta zuzendari ikastaroak arrakastatsuenak izan dira. Horrez gain, 100 pertsona inguruk hartu du parte gizarte kultur dinamizatzaile ikastaroetan, titulazio ofiziala izanik hau ere, eta beste asko

astialdiko begiraleei bereziki eta elkarte-erokorren zuzendutako ikastaro osagarrietan: euskal jolasak, bullying, bileren dinamizazioa, euskara suspertzailea, maskulinitate berriak...

Honez gain, Euskal Herriko elkarte, ikastetxe eta udaletako hezitzaile eta teknikariek, hainbat trebakuntza saio burutu dira eta horietan hezkidetzara, euskara eta kulturartekotasuna (eskolaren ardatz estrategikoak) zein sexualitate, gazteen partaidetza edo talde dinamika jorratu dituzte.

Urtxintxa Eskolaren helburuetako bat hezitzaileei baliabideak eskaintzearena izanik, hainbat liburu argitaratu



dira hogeitun urte hauetan, denak euskaraz: 'Mundua jolasean', 'Jolas ez sexisten bilduma', 'Bakerako Heziketa', 'Astialdirako hiztegia', 'Gazteentzako aukera berdintasuna hezkuntza ez formalean', 'Ipuinak ez sexistak izateko gida'... Azken urteotan Durangoko Azokara eraman dituzte liburuok.

Argitalpenez gain, Urtxintxa Eskolak bestelako baliabideak sortu ditu ere, Aholkularitza eta Dokumentazio Zentroa, esaterako.

Lan hauen ondorioz, azken urteotan Urtxintxa Eskolak zenbait sari eta aipamen jaso ditu, besteak beste, 2002 eta

2003 urteetako Bizkaiko Foru Aldundiaren Berdintasun saria eta, 2001 urtean, Hezkuntza arloko Emakunde saria, sari honen 2003. urteko aipamenarekin bat.

URTEURRENA

Hogeigarren urteurrenaren ospakizunak lanean hasi zituzten Urtxintxakoek, azaroan antolatutako 'Asko esateko! Asko egiteko! Gazteen partaidetza hausnartzeko' tailerrarekin. Parte hartze-ekin batera antolatutako tailer hau aukera aproposa izan zen Eskolaren ekintza garrantzitsuenetarikoa baten inguruko hausnarketa eragiteko. Bene-

tako ospakizuna, hala ere, otsailaren 10ean Kafe Antzokian izandako topaketa eta bazkariarekin heldu zen. Bertan, aro ezberdinetan Urtxintxan ibilitako pertsonen testimonioak izan ziren eta, horrela, Emilio García, Astarloa garaiko protagonistetarikoa bat, edo Agurtzane Lexartza eta Jabier Fuertes 'Txapas', urte askotan eskolan lanean ibilitakoak, gazteagoekin batu ziren eskolaren historia

oroitzapenetatik berreraikiz eta han zeudenak eta falta zirenak denon gogoa batuz. Arduradunen esanetan, aipagarriena "jende askok eskolarekin berriro harremanetan jartzeko aukera aprobetxatu eta eskolara hurbiltzeko nahia adierazi dutela" izan zen.

Urtemuga honek ez dakar etenik Bizkaiko Urtxintxa Eskolaren lan eta proiektuetan, eta horren adibide argia etorkizun hurbileko proiektuak dira, martxoan Barrian ospatuko dituzten begiraleen topaketak edota suspertze eskolak aurki argitaratuko duen zerbitzu-gida, barbarako.

Sastrea
EDRO
IRUDIA SORTZEN DUGU
BILBO

Santutxu kalea, 37 www.bilbaoweb.com/Spedro
Tfona: 944 128 714 E-Mail: iban.lopez@navigalia.com

HORTZ KLINIKA
GERMÁN BERGARETXE

GABRIELARESTI, 30 4. G
TXURDINAGA

94 412 82 74

MESÓN
BURETXE

Santutxuko poteo gunean

ELITEKO ATLETAK GEURERA EKARRI DITU SANTUTXUKO ATLETISMO KLUBAK

Elkarte mahatsorriak emakumezko talde profesionala sortu du

Santutxuko Atletismo Klubaren hogeigarren urteurrenarekin bat eginez sortu zuten emakumezkoen taldea, 2006an, eta ez nolanhiko taldea gainera. Zazpi atletak osatzen dute eta denak ere eliteko kirolari profesionalak dira, goi mailako txapelketetan aski trebatuak. Bilboko Nazioarteko Atletismo Topaketak eta 'Bilbao Kirolak' Nazioarteko Milia antolatzeaz ere arduratzen dira klubean, lanez gainezka ibili ohi dira, hortaz. Baina eginbeharrak ez ditu kikiltzen zuzendaritzako kideak, Alex Carneros presidentea buru, eta etorkizunean Santutxun atletismorako zaletasuna eta harrobia berpiztu eta emakumezkoen taldea indartu nahi lukete, zortea eta babesleak lagun.



Santutxuko atletismo taldearen korrikalariak 1986an.

Testua: Dabi Piedra
Argazkia: Santutxu Atletismo Taldea

Esan bezala, beraz, gaur egungo Santutxu Atletismo Taldeak bi eginbehar nagusi ditu: Alde batetik, atletismo txapelketak eta topaketak antolatzea. Eta beste alde batetik, emakumezkoen elitezko taldea aurrera eramatea. 1986an sortu zenean, ordea, klubaren funtzioa desberdina zen, atleta gehiago aritzen ziren Santutxuren izenean eta denak amateurak ziren, horietatik asko ume eta gazteak. Taldearen sorrera Nerbioiko Korrikalariak izeneko elkartearen dago. 1986an izena aldatu eta, Agustin Lopez presidente eta bultzatzaile nagusi zela, Santutxu Atletismo Kluba agertu zen. 80ko hamarkadan eta 90ekoaren hasieran, hainbat lasterketa antolatatu zituzten, hala nola, Bizkaiko Bira eta Euskadiko Kros Txapelketa. Bizkaian sekula ospatu den atletismo proba garrantzitsuena izan zen Munduko Cross Txapelketaren antolakuntza batzordean ere Santutxuko bi kide egon ziren, 1993an Zornotzako herriak proba hori antolatu zuenean.

Harrobiari dagokionez, garai hartan, Santutxuko klubarena Bizkaiko handi eta emankorrenetakoa zen, ehun neska-mutil baino gehiago aritzen baitziren talde mahatsorrian, eta horietako batzuk atleta ezagun izatera iritsi dira nagusitan. Amateurak ziren guztiak baina sari ugari lortu zituzten hainbat kategoriatan.

URTE BATZUETAKO ETENA
Zoritxarrez, 90eko hamarkadaren bukaera aldera, erakun-

de publikoek Santutxu Atletismo Klubaren dirulaguntza eten zuten eta horrek taldearen ekintza guztiak bertan behera geratzea eragin zuen. Presidenteak bere kargua utzi zuen eta, horrela, zenbait urtez iraun zuen etenaldia hasi zen klubarentzat. 2000. urtean, taldea berpiztu eta bigarren garaia hasi zuen, gaur eguneraino iraun duena. Bilboko Udalaren dirulaguntzak berriro ere iritsi ziren eta, beste zenbait babeslerekin batera, Alex Carnerosek gidatutako zuzendaritza berria lanean hasi zen, orain ezagutzen dugun Santutxu Atletismo Taldea hutsetik eraikitzen.

Klubak bi atletismo proba antolatzen ditu urtero. Bilbo Uriko Nazioarteko Atletismo Topaketa da zaharrena, aurten zazpigarren ekitaldia beteko baitu eta EAP Europako Atletismoa Sustatzeko erakundearen zirkuituaren kide denez, mundu osoko goi mailako kirolariak biltzen dira Zorrotzako pistan. Topaketa honen bidez, estalkirik gabeko atletismoan Euskal Herriko erreferentzia bihurtu nahi dute Bilbo. Beste alde batetik, aurten, bigarren "Bilbao Kirolak" Nazioarteko Milia ere antolatuko dute. Lasterketa hau Santutxuko Milia ezagunaren oinarrikoa da, Karmelo kalean egiten ari diren obren ondorioz, Bilboren erdigunera aldatu baitzuten proba. Aparkalekua egiteko lanak amaitzen direnean, hala ere, Santutxuko Milia berpizteko asmoa dute atletismo taldekoek.

EMAKUMEZKOEN TALDEA
Klubak antolatzen dituen ekitaldiez gain, 2006. urtean jauzi handia egin eta emakumezkoen eliteko taldea abiarazi zuten, orain arte talde mahatsorrian parekorik izan ez

duen proiektua. Bizkaian, gizonezkoen talde asko dago, baina emakumeenak oso gutxi dira eta originaltasun apur bati tartea egitearren eta nesken artean zaletasuna sortzeko asmotan bururatu zitzaizen emakumezkoen taldea egitea, zuzendaritzakoak erronka zailen zaleak dira eta. Traba ugari gainditu behar izan zituzten ideia aurrera eramateko, batik bat ekonomikoak. Bilboko udaleko kirol sailak, ordea, laguntza handia ematen dio egitasmoari eta horri eskerrak aurrera atera da. Alex Carneros presidentea ez ditu enpresa pribatuak ahaztu nahi, batez ere horiek izan baitira dirua eman dietenak publizitatea egitearen truke. Emakumezko taldearen babesle nagusia Erkoreka supermerkatu katea da, Alex Carnerosen hitzetan enpresa hori da proiektuari eusten diona: "Erkorekak ematen digun babesle eduki ezean, taldea existitu ere ez litzateke egingo, eliteko atletak fitxatzea eta azpiegitura egokia izatea oso garestia da eta".

Diru kontuez aparte, Alex Carneros presidentea emakumezkoen taldea sortzeko izan zuen arazo nagusia eliteko zazpi neska aurkitzea izan zen, bizkaitarren bila hasi zirelako lehenik, baina azkenean jatorri ugari-tako kirolariak ekarri zituzten. Osatu duten taldea ez da nolanhikoa, denak profesionalak dira eta gehien nabarmentzen dena Amaia Piedra da, izan ere, txapelketa piloa irabazitakoa izateaz gain, santutxuarrak da eta ideien bultzatzaileetako bat (klubaren zuzendaritzako kidea ere bada). Ezin da ahaztu, bestalde, Merien Alaoui marokoarra, palmares bikainaren jabe eta Santutxuko lortuen ugartzeko fitxaketa aproposa. Bi horiekin batera, nesken taldea Rakel Llamas, Ziortza Basterretxea, Beatriz Santiago, Ane Piedra eta Teresa Reciok ere osatzen dute. Alex Carnerosen iritziz, eliteko taldea ateratzeak prestigio handia ematen du, "auzoan jende askok ezagutzen gaitu orain". Atletismo Kluba egiten ari den ahalegin bereziak merezi duela dirudi, beraz.

Hain zuzen ere, otsailaren 18an Urtuellan jokutako Euskadiko txapelketan argi geratu zen goi mailako taldea osatu dutela. Alaoui Santutxuko Klubekoa nagusi izan zen, euskal herritarra ez izateagatik Euskadiko txapeldun izendatu ez bazuten ere. Taldeka ere, aise gailendu zitzaizkien mahatsorriak gainontzekoei eta Andaluziako Xerez-en jokatu beharreko Espainiako txapelketarako txartela lortu zuten.

ETORKIZUNARI BEGIRA
Elitezko emakumeen taldea sortuta, Santutxuko Atletismo Klubean ez dira ase eta, etorkizunerako, proiektu ugari dituzte buruan. Alde batetik, nesken taldea handitzea da asmoetako bat, hamabost korrikalari inguru izan arte. Lehen tasuna Bizkaiko kirolariei eman nahi diete, ahal izanez gero Bilbokoak, azken finean klub mahatsorria dira eta. Gizonezkoen talde profesionala egitea ere aztertu dute, baina gure inguruan horrelako asko dagoenez, momentuz ideia hori baztertuta dute.

Beste proiektu bat harrobia lantzea da, 80 eta 90eko hamarkadetan ehun neska-mutil baino gehiago ibili ziren taldearen izenean korrika eta, orain, berreskuratu egin nahi dute atletismoa sustatzeko ideia eta umeei

kirol hori praktikatzea ahalbidetu nahi diete. Bestalde, Alex Carneros presidentea zaletuei gogorarazi nahi die, behin Karmelo kaleko obrak amaituta, atzera Santutxuko Milia ospatzeari ekingo diotela.

HAZI ETA HOBETU

Euskadi

Finalist European Quality Award EFQM 2003

eleizbarrutiko ikastetxeak centros diocesanos

BEGOÑAZPI IKASTOLA

Jesús Galíndez, 15 • 48004 BILBAO
Tel 94 400 53 00 - Fax 94 400 53 01
www.begonazpi.org

Begoñako Santa Ageda, Otxarkoagako baserrietako buelta

Aurton be santa eskea egin dute Arbolantxan lehengo lege zaharrear

Asapala euskara elkartearen eskutik, aurton be santa eskean ibili dira 'gazte zoroak alkar hartuta'. Txurdinagako Garaizarren eta Maiuki tabernetan armozua hartu ostean, Arbolantxa aldeko baserrietara jo zuten makilen burrunba eta Santa Ageda koplak lau haizetara zabaltzera. Oles ta oles atean...



Ezkerrean, Irumineta, Goikoetxe eta Etxarte baserrietako jai giroa.



Goian, Arbolantxagane eta Atxeta baserrietan, baita bidean ere.



Erdian, Etxarteko jai giroa eta Etxezuriko Martinen aurrean kantari.



Eskuinean, goian Karmelo Elorriaga Goikoetxe aurrean, erdian Etxepinton eta behean Txurdinagako Malluki tabernan.




Behean, baserrietan eta Malluki tabernan eskainitako jateko gozoak: txorizoa, tostadak, buskaintzak, txakolina,...



ANGEL
 HARATEGIA - URDAITEGIA

 Txakoli Ategorri, 6. Tfnoa: 412 48 59

Kafe

Mañari
 Médico M. Pedro Cortés, 9 Telf. 94 411 99 33
 48006 BILBAO

GOIAN S.C.L.
LAN BERTIKALAK
 Pintura lanak etxaurre eta patioetan
 Ke-irteerak eta Ur-hodiak
 Eraikinetako edozein konponketa
ANDAMIO BARIK
TELEFONOAK:
630 08 09 38
659 45 16 22

horoskopoa



Aries: martxoaren 21etik apirilaren 20ra.

Aratusteetan zelako arrakasta, e? Deustuan lelen go astean Bilbon, eskapadaxoa Mundakara domekan eta azkena Santutxun. Gehiagorik balego, zu han.



Taurus: apirilaren 21etik maiatzaren 20ra.

Ederra dago! Gozo-gozoa dago! Hori esatea ete da zure aportazinoa euskal sukaldaritzarako? Jantzi amantala eta hasi lapiko artean!



Gemini: maiatzaren 21etik ekainaren 20ra.

Zenbat eta ordu gehiago jardun, orduan eta okerrago. Burua argitu behar dozu atzera be ekin aurretik.



Cancer: ekainaren 21etik uztailaren 20ra.

Albiste on-onak etorriko dira. Bizitza aldatzen daben barri gozoak.



Leo: uztailaren 21etik abuztuaren 23ra.

Memelo hori, memelo hori... Ez dakizu beste berbetarik ala?



Virgo: abuztuaren 24tik irailaren 23ra.

Garra-garraka zabiltz, astoak bezela. Pozaz leertzekotan ala kirola egitearren?



Libra: irailaren 24tik urriaren 23ra.

Ez dakit kanbio klimatikoaren ondorioak ikusteko parada eukiko ete dogun. Eguraldi zoro honek arinago akabatuko gaitu.



Scorpius: urriaren 24tik azaroaren 23ra.

Begikoa dozu, ez ukatu. Began behintzat, ahal dozun guztietan dekozu. Orain hurrengo pausoa egin behar dozu: zu bazareala jakin behar dau!



Sagittarius: azaroaren 24tik abenduaren 23ra.

Txipli-txapla ibiltea zenbat gustaten jatzun ikusita, zer egin behar dozu ura aurrezteko azken erabaki larriak ikusita? Uretan barik, ardaotan akaso, dolareetan lez?



Capricornius: abenduaren 24tik urtarrilaren 20ra.

Beharrera txiri-txiri joaten zara egunero. Tabernara, oster, arin-aringa. Tenplau, lagun, tenplau!



Aquarius: urtarrilaren 21etik otsailaren 18ra.

Sms bidez baino ez zara komuniketan. Lar modernoza zara ala kobazuloetako sasoieta bueltan zoaz?



Piscis: otsailaren 19tik martxoaren 20ra.

Ez bazara zu zeu hasten, beste inor hasiko da. Eta ez dabe zuk bezain ondo egingo...

agenda

MARTXOAK 8

EMAKUME LANGILEAREN EGUNA.

MARTXOAK 9

HERRIRA PLATAFORMAREN
MANIFESTAZIOA. 20:00ETAN.
RITXI-PLAZAN.

MARTXOAK 11

ARTZANBURURA (1.369 M.,
ARANTZATZU) MENDI TXANGOIA.
SANTUTXU MENDIZALE TALDEA.

MARTXOAK 11

DANTZALDIA. 18:00ETAN.
OTXARKOAGAKO AUZO ETXEA.

MARTXOAK 13

'HONOLULU LEKU BAT'.
GILKITXARO TALDEA. ANTZERKIA.
KAFE ANTZOKIA. 20:30EAN.

MARTXOAK 16

RUPER ORDORIKA. 'MEMORIAREN
MAPAN' DISKOAREN AURKEZPENA.
KAFE ANTZOKIA. 22:00ETAN.

MARTXOAK 16-25

DEUSTUKO JAIK.

MARTXOAK 17

IN EXTREMO. KONTZERTUA. SAN-
TANA27. 21:00ETAN.

MARTXOAK 23

REINCIDENTES + PORRETAS + BOI-
KOT + SONORA. KONTZERTUA.
SANTANA27. 20:00ETAN.

MARTXOAK 28

UXUE ALBERDI. 'AULKI BAT
ELURRETAN' LIBURUA
AURKEZTUKO DU. ASAPALAREN
IRAKURLEAREN TARTEA. ARBIDE
KALEKO EUSKALTEGIAN.
20:00ETAN

MARTXOAK 31

DANTZALDIA. 18:00ETAN.
OTXARKOAGAKO AUZO ETXEA.

Magia, Antzerkia,
Txotxongiloak, Ipuin
kontaketak...

IKUSI ETA IKASI

Bilboko
haur kultur
zirkuitua

Martxoak 1 Osteguna	KATARBELTZ ANTZERKI TALDEA, 18:00etan, Bilboko-La Bolsa eraikinean
Martxoak 3 Larunbata	ZIRIKA ZIRKUS pailazoak, 11:00etan, Deustuko Bidarte udaltegian
Martxoak 6 Asteartea	TRIKUHARRI ANTZERKI TALDEA, 18:00etan, Begoñako udaltegian
Martxoak 8 Osteguna	PELLO AÑORGA ipuin kontalaria, 18:00etan, Bilboko-La Bolsa eraikinean
Martxoak 10 Larunbata	DEABRU BELTZAK ANTZERKI TALDEA, 11:00etan, Deustuko Bidarte udaltegian
Martxoak 13 Asteartea	NIKO ETA PERIKO PAILAZOAK, 18:00etan, Begoñako udaltegian
Martxoak 15 Osteguna	GORRINGO ANTZERKI TALDEA, 18:00etan, Bilboko-La Bolsa eraikinean
Martxoak 17 Larunbata	AINHOA IRAZU, ipuin kontalaria 11:00etan, Deustuko Bidarte udaltegian
Martxoak 20 Asteartea	BIHAR TXOTXONGILO TALDEA, 18:00etan, Begoñako udaltegian
Martxoak 21 Asteazkena	IRRINTZI TXOTXONGILOAK, 18:00etan, Bilboko-Zamakola eskolan
Martxoak 22 Osteguna	OIHULARI KLOWN, ipuin kontaketa, 18:00etan, Bilboko-La Bolsa eraikinean
Martxoak 24 Larunbata	TXAN MAGOA, 11:00etan, Deustuko Bidarte udaltegian
Martxoak 31 Larunbata	PIRRITX ETA PORROTX eta AUSKALO TALDEA, 17:30ean, Bilboko-Zabalgunean

Antolatzailea:

Babeslea:

Laguntzaileak: